

OTSOA ETA ARKUMECHOA.

(FRANZES-IZKUNTZATIK ITZULIA.)

Arkume bi, lokabe zeuden beren salechean; lotan zeuden chakurrak, eta artzaiya, zumar aundi baten gereizpean, beste auzoko artzai batzuekin, chirola jotzen ari zan.

Otso gosedun bat etorri zan, eta esiaren irrinartéetatik begiratu zuen zér artalde zegoen barruan.

Iñoiz ezer ikusi gabeko arkume bat asi zan otsoarekin itzegiten.

—¿Zér billatzen dezu?—esan zion jatunari.—

—Belar samur loretsua—eranzun zion otsoak.—Zuk badakizu zein gauz ederra dan, lorez apaindutako zelai batean bazkatzea, gosea kentzeko, eta erreka garbi batean egarria iltzea. Emen, bata eta bestea arkitu ditut. ¿Zér geyago bear da?.. Egokinde zalea, nola naizen, gauza guchirekin asetzen naiz.—

—Beraz egiya da—esan zion arkumechoak—ez dezula aberéen aragirik jaten, eta belar piška batekin aski dezula? Ori ala bada, bizi gaitean anai onak bezela, eta bazkatu dezagun elkarrekin—

Bereala, irten zan arkumea salechetik zelaira, non *egokintsu guchirekin asetzen zanak*, zatitu eta iruntsi zuen.

Etzazute zuen ustekidarik jarri, birtutetsuak dirala goiteriz esaten dutenetan; tinka zaitzte beren egintzétan, ez beren itzetan.

EL LOBO Y EL CORDERITO.

(VERSIÓN CASTELLANA.)

Dos corderos estaban libres en su aprisco; los perros dormían y el pastor, á la sombra de un gran olmo, tocaba la flauta con otros pastores vecinos.

Vino un lobo hambiento, y miró, por las hendiduras de la cerca, qué rebaño había dentro.

Un cordero que nunca había visto nada, empezó á hablar con el lobo:

—¿Qué buscas?—le dijo al gloton.

—La yerba tierna y florida—le respondió el lobo.—Tú ya sabes cuán bello es pacer en una pradera, matizada de flores, para acallar el hambre, y apagar la sed en un claro arroyo. He hallado aquí lo uno y lo otro. ¿Qué más se necesita?... Como me gusta la filosofía, con poco me contento.

—Con que es verdad—le dijo el corderillo—que no te alimentas de la carne de los animales, y que te basta un poco de yerba? Si es así, vivamos como buenos hermanos, y pazcamos juntos.—

Al instante, salió el cordero del redil á la pradera, donde el filósofo *que con poco se contentaba*, lo despedazó y lo tragó.

No pongais vuestra confianza en aquellos que hacen alarde de ser virtuosos: fijáos en sus obras; nó en sus palabras.

CARMELO DE ECHEGARAY.

LARROSACHOA

(FRANZES-IZKUNTZATIK ITZULIA.)

Alberto-k ipiñi zuen lorontzi batean larrosa landare bat. Uda berriaren asieran landare ori ikusten zan lora-mote pollitez betea.

Eguraldi ederra zegoen guztiyan, ateratzen zuen leiyoaren kanpoko-aldera arratsa-arte; bada, orduan, zeritzkionean aize bizichoa zebillela, bere gelara sartzen zuen.

Beñ, usterik eguraldi gozo eta paketsua zegoela, eta gabaz kanpoan egoteak, etziola gaitzik egingo landareari, laga zuen sartu-gabe; eta ¡orra non! urrengo goizean leiyoa idiki beñ laster, arkitzen di-tuen lorecho guztiyak izotzarekin zimeldurik.

Samiñki negar egiten zuen begiratzean, eta zion: ¡Beraz añ gauza